



...eta
Kitto!

2018-VI-1 1060 zkia.

Ezinbestekoa Ni banoa. ZU!



2 mō
betaurreko:
 graduatuak
 erreflexuen aurkako leiarrekin
 + eguzkitako graduatuak
99€

Gure betaurreko guztiak
 2018 bildumakoak dira



Bidebarrieta, 2
 Tel.: 943 20 05 22
EIBAR

MULTIÓPTICAS
 lehen zerbiztu optikoetan

R.P.S. 175/15 I.L.G.

Lanerako gertu!

2018-2019

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA S.COOP

75

75 URTEZ JAKINTZA SUSTATUZ
ETORKIZUNA ERAIKITZEN

Izen-ematea

Ekainaren 4tik 15era

Eskaintza akademikoa

- Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak
- Automatizazioa eta Robotika Industrialia
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa
- Mekatronika Industrialia

www.mondragon.edu/gmh
gmhz.mgep@mondragon.edu
943 71 21 91 • 664 277 592

**...eta kitto!-ren
itzulpen
zerbitzua**

**ERA GUZTIETAKO
TESTUAK
ITZULTZEN
DITUGU,
euskaratik
gaztelerara,
gazteleratik
euskarara,
eta ingelesetik
euskarara.**

**- Urte askotako
ESPERIENTZIA dugu.**

**- Bezeroaren
beharretara
EGOKITUko gara.**

elkartea@etakitto.com

ARGITARATZAILEA:
...eta kitto! Euskara Elkartea.

HELBIDEA:
Urkizu, 11. 20600 Eibar

TELEFONOAK:
943 20 67 76 / 943 20 09 18.

FAXA: 943 20 28 72.

ASTEKARIAREN E-MAILAK:
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK:
elkartea@etakitto.eus /
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:
Ana Aizpurua, Itziar Albizu,
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi,
Silbia Hernandez eta Uxue Igarza.

ADMINISTRAZIOA:
Marisol Uriarte.

KOORDINATZAILEA:
Ana Aizpurua.

ERREDAKZIO-BURUA:
Silbia Hernandez.

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:
J.L. Gorostegi.

ARGAZKI ARLOA:
Maialen Belaustegi
eta S. Hernandez.

HIZKUNTZA ARDURA:
Juan Andres Argoitia
eta M. Aranberri.

PUBLIZITATEA:
Itziar Albizu eta Belen Ulazia.

TELEFONOA: 943 20 67 76.

AZALA:
J.L. Gorostegi

BANAKETA-ARDURADUNA:
Ainhoa Luz.

TIRADA: 8.150 ale.

INPRIMATEGIA:
GERTU koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A: ...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA: SS/430/92.
ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto! "k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza
Politika Sailak diruz lagundutako aldizkaria



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

Eskutitzak

– Eskerrik asko lagundu gaituzuen guztioi –

Eibarko 53. Euskal Jaia ospatu dugu: jai giroan bustita, ondo pasatzeko eta gure kultura bultzatzeko asmoz, herriko kaleak berriro ere euskal kulturarekin bete ditugu.

Baina hori guztia ezingo litzateke lortuegitarrua osatzen eta ekimenak aurrera ateratzen saiatzen diren hainbat eta hainbat erakunde eta pertsonen laguntzarik gabe. Ehun lagunetik gora jardun dute aurten ere janaria prestatzen, garbiketara, azoka muntatzen, jatorduetan zerbitzatzera, sukaldean eta abar luze bat. Erakunde bat baino gehiago ere bai: Kultura, Eibart, ...eta kitto!, Debemen, Udala, Iturburu, kirolegia, elkarte

gastronomikoak eta abar, bakoitzak bere ekarpena eginez ahal edo nahi izan duen neurrian. Guztioi guztioi gure eskerrik beroenak izandako jarrearengatik eta Euskal Jaiaren edizio berri bat eskaintzen laguntzeagatik.

Azkenik, eskerrik asko bene-benetan Klub Deportiboari, berriro ere Euskal Jaiari eskaini dion babes ekonomiko zein pertsonalarengatik, berak hartzen baititu bere gain antolakuntzaren ardura gehienak, Kultura Batzordearen eta Kezkaren bitartez, eta finantziarioaren zatirik handiena.

Klub Deportiboko Kultura Batzordea
eta Kezka Dantza Taldea

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

MANTETAKO UME.- Besuetan, manta artean eroaten den umea. Ojalietako umea.

'Niño de mantillas'. "Mantetako umia zala juran erbestera".

MANTAR.- Beharrerako amantala. "Aste guztian, lo egitteko be ez dau kentzen mantarra".

astean esanak

"Kalamuaren THC osagaia eta nerabezeroan garatutako eskizofrenia lotzen dituen mekanismoa identifikatu da azkenik. Beti lotu izan dira biak, baina ez genekien nola. Saguei denbora luzez emandako THCak erakutsi du asko kitzikatzen duela serotoninaren 2A errezeptorea, eta errezeptore horretan dago eskizofreniaren eldarnioen jatorria gizakietan. Hala ere, eskizofreniarako joera genetikoaren duten nerabeengan kalamua arrisku faktore bat da, besterik gabe. Baina hori ez da nahastu behar kalamuak medikuntzarako duen ahalmenarekin. Ikertzaileek txantxa gisa dietona: 'Porruak, 40 urtetik gora'"

(LEIRE URIGUEN, IKERLARIA)

"Metro Bilbaok San Mameseko metro geltokiaren izenari *Santimami* gehitzeko erabakiaren aurrean Bizkaiko Batzar Nagusien gehiengoa aurka agertu izanak, Loiuko aireportua mediatikoki *La Paloma* berrizendatzeko ahaleginak edo *Bilbao* eta *Bizkaia Arena*-k erakusten dute izendapenetan euskarari toki zentralak emateko erresistentzien aspaldiko inertzia eta mentalitate tradizionaleri gehitzen zaion berri bat baino ez dela ingelesaren olatua. Orain arte elebidunak edo izen 'neuroak' erabili badira euskara huteszkoei batera protagonismorik eman gabe, ez dirudi kasualitatearen ondorio denik. *Gran Teatre del Liceu* bezalakorik ez badugu, ez da ingelesez izendatzeetan sartzearen ondorio"

(GALDER UNZALU, ANTROPOLOGOA)

"Euskal sexualitatearen argazkia eginez, sedukzio gaietan nahiko motel gabilza. Alde batetik, klimak baldintzatuko luke hori. Ez dakit zientifikoki aztertu den klimaren eragina; baina, esperientzia oinarri hartuta, hori denok baieztatuko genuke. Bestetik, tratu ona bermatuta egongo dela jakin arte, jende asko, ziur aski, ez da prest egoten jokoan sartzeko, ez dakielako ondo amaituko den edo ez. Hemen, batzuetan, nahiko lakarrak, zakarrak izaten gara proposamenak egitean eta jasotzean: grazia eta artea falta zaigu, agian. Ez dut esaten denok horrela bizitzen dugunik errealitatea, baina hobetzeko tarte badaukagu lantzeko. Hori bai, hemen zein kanpoan, existi daitekeen tragediarik handiena da, elkar maitatuta ere, maitatua ez sentitzea"

(NEREA SANCHO, PSIKOLOGOA ETA SEXOLOGOA)

**UNAI ARTETXE**

Zaharrak berri

Ariketa mental batekin natorkizu gaurko honetan, irakurle. Barkatuko didazu atrebentzia, baina iruditzen zait hainbeste urtetan halako hiruzpalau zutabe idatzi eta gero, niri ere iritsi zaidala zuri zerbait eskatzeko unea.

Sofa eroso batean, ohean edo egongelako alfombra gainean etzan zaitez, eta itxi begiak. Hartu lasai arnasa sudurretik eta ahotik bota. Ez izan presarik. Zu zeu konturatuko zara erabateko baretasunean zaudela. Jarraitu arnasa lasai hartzen eta begiak itxita. Hastera goaz. Alboan izango nauzu, ez izan izan beldurrik.

Orain, iraganera bidaiatuko dugu biok une batez. Kristo aurreko 500 urte ingurura, hain zuzen ere. Greziara. Baina ez orain buruan izan dezakezun Grezia horretara. Orain dela 2500 urteko horretara. Zer irudikatzen duzu?

Zure parean duzu pantenoia, eraikin erraldoia, ederra, hautsik gabekoa. Historiako lehen txanponak ere egin berri dituzte. Trukeak beste dimentsiorako jauzia eman behar du momentu honetatik aurrera. Une historikoan murgildu zara. Bero da Grezian. Aspaldian ikusi gabeko eguzkia ere existitzen omen da. Tira, joan ginena baino beltzaran itzuliko gara behintzat iraganetik. Gaitzerdi! Jarraitu begiak itxita, faborez. Eta itzuli gaitzen iraganera.

Pantenoia sarrera nagusiaren alboan aspaldiko laguna irudikatzen duzu.

Clistenes ote? Gerturatu eta han da, bai, Megacles II.aren semea, ezagutzen ez dituzun beste hiru kideekin, gizonak guztiak, adierazpen askatasunari buruz solasean. Montesquieu, Voltaire eta Rousseau omen dira. Beraiek horrela aurkeztu dituzte beraien buruak. John Stuart Mill ere bertan da. Baita Oliver Wendell ere.

Beraiengana erabateko isiltasunean eta burumakur hainbat pertsona hurbiltzen ari dira, bata bestearen atzetik, ilaran, burumakur, epaiketa baten zain egongo balira bezala. Triste dirudite. Atsekabetuta. Sudur handi hori ezaguna egiten zaizu. Evaristo? La Pollako Evaristo? Hemen? Kristo aurreko 500 urtean? Eta beste hori Valtonyc? Hala dio bere txapelak. Pablo Hasel, Strawberry, Muguza... Aurpegi ezagun asko eta asko. Gehiegi. Bada sasoi iraganetik itzultzeko, irakurle. Edo oraina ote? Begiak ireki. Eta arnasa lasai hartu. Gogoratu, sudurretik hartu eta ahotik bota.

Urteak pasa dira. Zaharrak berri.

Aitor Buendiak Euskadi Gastronomía Sarixa jaso dau "La Ruta Slow"-arengaitik

Radio Vitoriako kazetari eibartarrari aurtengo Euskadi Gastronomía Sarixa emon detse aittatutako emisoran eta Radio Euskadin emititzen dan "La Ruta Slow" irratsoarengaitik. Gasteizen egindako ekitaldian banatu zittuen sarixak Gastronomía-ren Euskal Akademixak eta, Aitor Buendiari emandakuarekin batera, sukaldari onenaren sarixa Galdakaoko Andra Mari jatetxeko Zuriñe Garcia sukaldari nagusixari egokitu jakon eta zuzendari onenarena Donostiako eMe Be Garrote jatetxeko Rafael Moya sala zuzendari-xari. Aurrekuez gain, Bittor Arginzoniz sukaldarixari eta Axpe erretegi-xari aipua egitten detsan "Etxebarri" liburuak jaso dau gastronomixari buruzko argitalpen onenaren sarixa.



asteko
1.034.895
datua

euro erabiliko dittu Udalak 2018. urtian herriko kaliak asfaltatzeko. Danera 41.995 metro karratuko azaleria asfaltauko dabe 43 tokittan. Biharrik inportantiennen artian Azittaingo industrialdian (180.664 euro 7.622 metro karraturako), Santaiñes kalia (80.920 euro 3.414 metro karraturako), Unben (57.727 euro 2.435 metro karraturako) eta Untzagako albuetao batian (51.526 euro 503 metro karraturako) egin biharrekuak dagoz.

Antonio de Blas Pedrucho zezenzalien peñako presidentia hil da

Antonio de Blas "Txikito de Zaldibar" Pedrucho zezenzalien peñako presidentia ezustian hil zan astelehenian, 67 urterekin. Antonio urtetan zezen-plazako mantenimenduan jardun zeban eta, presidente izan aurretik, urtiak egin zittuan Bicicletas GAC eta Bacalaos Monedero enpresetan biharrian. Justu azken asteburua bete-betia izan zeben Pedrucho-



kuak, De Blasek eta zuzendari-tzakuak antolatutako txanguarekin. Eladio Vegasen Los Expolios finka bisitatu zeben Valladolideko Rueda herrixan eta, jarraixan, Avilara juan ziran han Andres Hernando toreruekin egoteko. Avilan bertan Rosa Suarezek, Ignacio Zuloaga pintoriaren billobak, harrerria egin zetsen.

De Blasek Lukas Alberdiren koadro bat oparitu zetsan Eladio Vegasi.



Udalak 368.702 euroekin lagunduko ditu kultura, kirol eta euskera arloko jarduerak egiten dituen alkartiak

Aurreko eguenian udaletxeko pleno aretuan siñatu ziran hitzarmenen arabera, Eibarko Udalak aurtun 368.702 euro emongo ditu herrixan antolatzen diran 53 kultura, kirol eta euskera arloko jarduerak diruz laguntzeko. Horretarako, 40 elkarterekin hitzarmenak izenpetu ditu. Dirulaguntza izendunen hitzarmenak siñatzeko ekitaldixan Miguel de los Toyos alkatea eta taldietako ordezkariak hartu eben parte. Udalak urtero izenpetzen ditu horrelako hitzarmenak alkartiak aurkezten dituen jardueren proposamenen arabera.



Esperientzia Eskolakuekin herrixa zaintzen

Aurreko astian amaittu eben ikasturtia Debabarreneko Esperientzia Eskolako 14. promozioak. Aurtengo ikasturte amaierako proiektua #herriazaindu izenekua izan da eta, horren harira, herriko kalietan pegatinak ipintzen dihardue, jendia herrixa txukunago eukitzeko animatzia billatzen daben esaldixekin. Asmo berarekin gaur Untzagan egongo dira, "Fundamentua opari" izeneko jarduerarekin.

autuan

GIPUZKOA ARGITU TAILLARRAK

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetarako Departamentuak, Udalarekin eta Debegesa garapen agentziarekin alkarlanian, Gipuzkoa Argitu programaren baitan, etxietan, enpresetan eta alkartietan energixa modu eraginkorrian erabillita eta erosotasunik galdu barik energixa eta dirua aurrezteko aholkuak ezagutzera emoteko doako tailarrak antolatu ditu ekaiñaren 7rako: jubilaundako 10:30xetan izango da, Untzagako jubilaue txian eta herritarrendako orokorrian, barriz, Portaleko 3. pisuko ikastaro gelan, 18:00etan.

SUSPERTZE TEKNIKEN TAILARRA

"Zure eskuek bizitza bat salba dezakete" goiburuari jarraituta, DYAK 7. urtez jarraixan "BBS/RCP eguna" ospatuko dau gaur. Sensibilizazio-kanpaina horrekin Bihotz-Biriken Geldialdi baten aurrian jokatzen jakitiaren garrantzixa gogorarazi nahi dabe eta domekan standa ipiñiko dabe Untzagan, 17:00etatik 20:00etara nahi dabenak suspertze oiñarrizko teknikak doan ikasteko.

maiatzak 13
Argantzun

ARABA EUSKARAZ

IRTEERA 09:00etan Ego-Gainetik

AUTOBUS ZERBITZUA 10

BUELTA 19:00etan

J.A. Mogel Ikastolako Gurasoen Elkarte ...eta kitto! Euskara Elkarte

f M Funeraria·Ehortzetxe
Mugica

EIBAR Beilatokia Funeuskadi Eibar: Otaola, 27

ELGOIBAR Beilatokia: SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)

Bulegoa Eibarko erdialdean

24 orduko zerbitzu iraunkorra

943 20 19 51 www.funeuskadi.com

Euskadiko Lehen Ehortze Taldea **GRUPO Funeuskadi**



Hitzarmen propio baten aldeko mobilizaziñuak

LAB sindikatuak deittuta, bi orduko lanuztea egin eben taillar askotan eguaztenian, "hitzarmenen estatalizaziñuaren aurka eta Lan Harremanen eta Babes Sozialerako Euskal Esparruaren defentsan". Eibarren eguardixan abiatu zan manifestaziñua Untzagatik eta, herriko kaliak ziherkatu eta gero, atzera be han amaittu zan.



Euskal Eskola Publikuaren Eguna ospatuko dabe domekan Lekeitixon

"Zapran gagoz!" lelopian egingo da aurten-go Eskola Publikuaren Eguna etzi Lekeitixon, bertako Eskola Publikoko ikasle, irakasle eta gurasuak antolatuta. Oin dala 27 urte hasi ziran Euskal Eskola Publikuaren jaixa ospatzen eta, hasieratik, euskal eskola publikua aldarrikatu eta hauspotzia izan da jaixaren helburu nagusixa. Domekako egitaraua 11:00etan hasiko da eta azken aktuaziñuak 17:30ean hasiko dira: hor izango dira, beste batzuen artian, Pirritx eta Porrotx, Ze Esatek musika taldia, Imanol Ituiño magua eta Patxi Perez eta Konpainia. Aittatuakuz gain, rokodromua, oreka eta perkusiño taillarrak, margolarixen uhartia eta beste jolas asko izango dira.

Kirola Euskaraz Bizi bixar Iturburun

Bixar ospatuko dabe Kirola Euskaraz Bizi olinpiaden beste ediziño bat Iturburun. Goizeko 09:00etatik hasita goiz guztian zihar kirol proba ezberdiñak jokatuko dittue ikasliak: txinga eruatia, eskubaloia, pelotia, bolei, krosa, patinajia, kaskara-biltzea, sokasaltua, rokodromua, abiadura, foballa, erreleboak... Urteroko moduan, kirola eta euserkia uztartzen dittuan jaixa arratsaldera arte luzatuko dabe ikasle, guraso eta irakasliak.



70 urte betetzen dittuenak alkarrekin bazkaldu eben aurreko zapatuan



1948xan jaiotakuak aurreko zapatuan egin eben bazkarixa. Untzagan batu eta taldiaren erretratua egin eta gero, Eibarko Armagintzaren Museora juan ziran, bisita egittera. Ondoren, piskolabisa hartu eben Arkupe tabernan eta, jarraixan egindako txikiteua amaittuta, Untzaga Plaza hotelian bapo bazkaldu eben.

Kontsumo Arduratsuaren III. Azokia egingo dabe domekan

Egoazia Gobernu Kanpoko Erakundiak eta Aldatzen boluntario taldiak domekan, ekaiñaren 3an anbulatorixo parreko parkian egingo daben Kontsumo Arduratsuaren III. Azokia aurkeztu eben martitzen goizian, udaletxian egindako prentsaurrekuan. "Ardu-raz kontsumitu!" goiburuari jarraituko detsan azokarekin hainbat helburu lortu nahi dituela adierazi dabe antolatzaillik: "Ingurugirua zaintzan eta justizia sozialian oiñarritutako beste kontsumo bidiak edo moduak ezagutzera emon nahi dittugu eta, horrekin batera, Eibarko gizartian kontsumo arduratsua bultzatu nahi dogu, horretarako daguzan kontsumo arduratsuaren ereduak aurkeztuta".

Hori dala eta, aurtan azoka bidezko merkataritzatik hara-



Aurreko astian aurkeztu zeben domekan egingo dan ekitaldixa.

tago juango da eta kontsumo arduratsua ahalbidetzen daben hainbat taldek hartuko dabe parte: FIARE banku etikua, Goiener energia berriztagarriren proiektua, Eibarko Aza eta Porrúa eta Karabeleko kontsumo taldiak, Meabeko Ogixe basarriko ogixa eta pastelak,

bidezko merkataritzako produktuak, Etxebemendiko gazta eta esnekixak, Ardilanak, Baobeer garagardua, Unesco Etxia, Txaramela pasta agroekologikua eta Alboan.

Azokia 11:00etatik 14:30etara bittartian egongo da martxan eta, aittatutakuak ipiñiko

dittuen postuekin batera, hainbat ekintza osagarri egingo dittue: "Inguruko produktu ekologikoz eta bidezko-merkataritzako produktuekin osatutako otar baten zozketia egingo da, Unesco Etxiak antolatutako 'Garapen jasangarriaren helburuak' erakusketia ipiñiko dogu, eguardiko 12:00-xetatik 14:00xetara 'Zure ravioli agroekologikuak egin' ize-neko taillarra egingo dogu haurrendako, Egoaziak lehen aldiz antolatu daben kontsumo arduratsuaren inguruko argazki lehiaketako irabazlieri sarixak banatuko detsagu, 13:30xetan, eta lehiaketara aurkeztutako argazkixak erakutsiko dittugu eta, Alboan-ek martxan daukan proiektuarekin bat eginda, telefono mugikor zaharrak batuko dittugu, birziklatzeko".




Pensiñuen aldeko manifestaziño jendetsua

Pensiño duñiak eskatzeko aurreko zapatuan egin zan eskualde maillako manifestaziñuan jendetsua batu zan atzera be. Egurdixan urten zan Untzagatik jubilaueen plataformak eta alkartiak deittuta, arratsaldian hiriburuetan egin ziran manifestaziñuetarako beroketa ariketa gisa egin zan mobilizaziñua. Amaieran gogorazi eben moduan, astelehenero egitten dittuen kontzentraziñuekin segiduko dabe, 12:00xetan udaletxe parian.

Iñaki Galparsoro Garcia 5. Urteurrena (2013-VI-5)

Urteak pasatu diren arren, gure bihotzetan eta bizitzetan jarraitzen duzu. **ETXEOAK**



Mogel Isasi eta Itzioko DBHko ikasleek bat egin eta elkarrekin ikasten dute zentro berean 2017ko irailaz geroztik. Hautsak harrotu zituen Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak hartutako erabaki honek eta iritzi kontrajarriak sortu ziren herrian. EH Bilduk norbanakoen kezka eta ardurak jaso eta gai honen inguruan lan egiten duen barne lantaldea jarri zuen martxan iaz. Eguaztenean foro irekia antolatu zuen Kultun lantaldean egindako lana aurkeztu, eta Rebea Uberaren bidez Bilduk Eusko Jaurlaritzan egindako lana eta Leire Diaz de Gereñuk Gasteizeko Ramon Bajo ikastetxean bizitako esperientziaren berri emateko.

Eibarko Eskola Mapari buruzko foro irekia deitu zuen EH Bilduk eguaztenean Kultun. Hitzaldi gela bete egin zen, gai honen inguruan dagoen kezka, ardurak eta jakinminaren seinale. *"Herritar askori eragiten dion gaia da"*, aipatzen zuten Kultura joandakoek, eta horregatik jarri zuen martxan Bilduk gai honen inguruan lan egiteko lantaldea 2017ko martxoan. *"DBHko ikasleen fusioaren ostean EAJ eta PSE ez dira mugitu, eta aukera baten aurrean gaudela uste dugu"*, adierazi zuen Gorka Errasti Bilduko zinegotziak. *"Herrian adostasuna bilatu nahi dugu, txikitik, nolako Eskola Mapa nahi dugun erabaki eta goiko erakundeetara gure proposamena bidaltzeko"*. Herriko eskola publikoetako ordezkariak, hezkuntzako adituek eta gurasoek osatzen dute lantaldea.

"Hezkuntza ezin da egon alderdi politikoaren nahien arabera", adierazi zuen foro irekira joandako lagun batek eta, horren harira, Bilduk eratutako lantaldeak dilema bat izan zuela aipatu zuen Errastik. *"Eskola Mapari buruzko eztabaida guk sortu behar dugun edo herritik irten behar den pentsatu dugu sarritan"*. Gauzak horrela, norbanakoek zuzenean azaldutakoak jaso eta gaia errotik lantzeko proposamena egiten du Bilduk gauza bi argi edukita. *"Batetik, euskeraren erabilera bermatzea; eta bestetik, Eibarko aniztasuna kudeatzea"*.

Eskola Maparen gaia konpontzeko errezeta magikorik ez dutela onartu zuen Errastik, baina hainbat proposamen bota



zituen eguaztenean. *"Batetik, Hezkuntza Teknikariaren figura berreskuratu eta Hezkuntza Batzordea eratu nahi dugu"*. Herriko Eskola Kontseilua sortzea da Bilduren bigarren neurria. *"Eibarko hezkuntza ingurunean eragiten duten teknikariak, gurasoek, irakasleek... osatuko lukete, Jaurlaritzako ordezkariak gabe. Horretarako, Udalaren baliabideak erabiliko lirateke eta bertan lortutako adostasunak Jaurlaritzara bideratuko genituzke"*. Hirugarren neurriak herriko ikastetxeen giza baliabideak indartzea du helburu. *"Udaleko Euskerak, Hezkuntza, Kultura eta Immigrazio Teknikariak Eskola Aholku Taldea delakoa sortzea da asmoa, eskolek baliabide horien beharra dutelako askotan eta ezin delako euren gain utzi pisu guztia"*. Bilduk proposatutako azkeneko neurria Eskola Kirola ekimena bateratzea izango litzateke eta, era berean, *"gauza txikia badirudi ere, Aristoteletako desfilea ikastetxe guztiak elkarrekin egiteak ere laguntzen du"*. Proposamen horiek kontuan izanda, Udalean mozio bitartez eragingo duela aurreratu du

Bilduk, eta herritarren iritzi eta proposamenak jasotzeko ateak zabalik dituela adierazi zuen Errastik.

Gasteizeko Ramon Bajo eredu

Aniztasuna kudeatzeko zalantzak eta auzoetako bizitzak izan duen gainbehera jarri zuten mahai gainean Kultun batu ziren hainbat lagunak. Herri, auzo eta ikastetxe bakoitzak bere beharrak dituela adierazi zuten hizlariak, eta horren adibide da Gasteizeko Ramon Bajo zentroa. Euskadiko hiriburua-aren alde zaharrean dago kokatuta eta bertako gurasoa den Leire Diaz de Gereñuk azaldu bezala, orain dela 15 urte zaila zen irudikatzea Ramon Bajo D ereduko zentroa izango zela gaur egun. *"D ereduak ikasi nahi zutenak handik kanpora joaten ziren, A ereduak bakarrik zegoen, baina 2006an hainbat gurasok euren seme-alabak D ereduak matrikulatu ahal zuten galdetu eta onartu egin zituzten"*. Orduetik, euskara indartu da auzoan, auzoko aniztasuna islatzen da zentroan eta komunitatearen zentzua berreskuratu dute. *"Aberastu egin gaitu"*.

Ekainaren 6an, 18:00etan, Gipuzkoako hainbat elkarte Portaleko areto nagusian izango dira, *Hedatuz* proiektuarekin, euren elkarten zereginari eta premiei buruzko ikusentzunezko proiektuak eta laburmetraiak eibartarroi erakusteko. Laburmetraien aktoreak elkarte ezberdinetako kideak eta boluntarioak dira eta parte hartuko duten elkarteak hauexek izango dira: **Katxalin** bularreko eta ginekologiako minbiziagatik eragindako Gipuzkoako emakumeen elkarte; **Bizi Bide** Fibromialgia eta sentsibilitate kimiko multiplea dutenen elkarte; **Gielmar** Gipuzkoako elbarrien elkarte eta **AGISAS** Gipuzkoako gizarte integratzaile eta animatzaile sozio-kulturalen elkarte.



ALEJANDRO CADENAS (AGISAS elkarteko presidentea):

“Bideak zabalduz elkarteak integratzeko eta euren lana ikustarazteko proiektua da”

- Eibarren eta beste herri batzuetan “Hedatuz” izenarekin antolatu duzuen saioa “Bideak zabalduz” proiektuaren barne dago. Zer da “Bideak zabalduz”?

Proiektu hau gure elkarteak, AGISAS-ek gestionatzen du. Hau hirugarren urtean da eta Portalean ikusiko duguna aurreko urteko lanaren emaitza da. Esklusio sozialean dauden edo premia bereziak dituzten elkarteekin egiten dugu lan, eta proiektu honekin elkarte horiek bultzatu eta lagundu nahi ditugu. Urtero Gipuzkoako lau elkarte aukeratzeko dira eta tailer desberdinak egiten ditugu eurekin.

- Tailer hauetan laburmetraiak egiten ikasteaz gain beste hainbat gauza ere lantzen dituzue.

Elkarte bakoitzarekin tailerrak egiten ditugu 3 hilabetetan zehar. Laburmetraiak egiten ikasten dute (gidoi literario eta gidoi teknikoak), baina, horretaz gain, euren errealitatea eta beharrei buruzko analisisa egiten dugu, beti ere euren ikuspegitik. Esate baterako, Bizibideak bi lan aurkezten ditu. Lehenengoa elkarteari buruzko erreportaje bat da, eta bertan elkartearen nondik norakoak eta helburuak azaltzen dira; ondoren, laburmetrai baten bitartez, istorio bat kontatzen dute. Proiektuaren bitartez gauza asko lantzen dira: talde-lana, abili-

dade sozialak, kontsentsuan lan egitea, erabakiak hartzeko modua... eta oso garrantzitsua dena: autoestimua. Amaieran, beti, genero-berdintasunari buruzko tailer bat egiten dugu, eta denon artean berdintasunari buruzko laburmetrai bat ere bai. Proiektu honetan garrantzitsuena da eurek egiten dutela, eurak dira protagonistak, eta bizi duten esperientzia edo errealita-



Alejandro Cadenas, KATXALIN elkarteko kideekin.

teari buruz berba egitea oso onuragarria izaten da eurentzako.


- Jende askoren kolaborazioa izaten duzue eta urtero Donostiako Antzoki Zaharretan aurkezten dituzue zeuen lanak.

Aurtengo gala martxoaren 23an egin genuen. Ekitaldi potentea izaten da. Elkarte bakoitzak bere proiektua aurkezten du eta, prozesu horretan euren lanean ibili diren kolaboratzaileak egoten dira. Egindako lana horrelako ekitaldi ponposo batean aurkezteak garrantzi handia dauka eurentzako. Azken batean, proiektuaren bidez elkarteek ikusgarritasun handia lortzen dute. Laburmetraietan Oscar Terol aktorea izaten dugu kolaboratzaile moduan, eta esan beharrik ez dago horrelako kolaboratzaileen presentziak asko laguntzen duela jendea gure lanak ikustera etortzeko. Urtero Andoaingo Zine Eskolaren eta Donostiako Arte Eszenikoen Tailerraren laguntza izaten dugu.

- Portalean zer eskainiko duzue?

Elkarte bakoitzeko ordezkari bat egongo da gutxienez, eta aurkezpena egin ondoren euren laburmetraiak erakutsiko dituzte. Herriar eta eragile guztientzako zabalik dago ekitaldia, eta eskatzen dugun bakarra kolonia, lozio, krema edo bestelakorik ez eramatea da, sentsibilitate kimikoa daukateleentzat kaltegarria izan daiteke eta.

Donostia, Bilbo eta Gasteiz batuko ditu Gure Esku Dago mugimenduaren ekimenez ekainaren 10ean egingo den giza kateak, 201,9 kilometro egin eta gero. Erabakitzekeo eskubidearen alde eskuak batuko dituzte Euskal Herriko milaka herritarrek, eibartarrak barne eta, ekitaldirako egun gitxi batzuk baino falta ez direnean, gero eta maizago ari gara galdera hau entzuten: "Ni banoa, eta zu?"



Ni banoa, eta zu?

Hiru hiriburuak batzeko ibilbidearen barruan Eibar egonda, eibartarrei zein inguruko herrietan bizi direnei ekainaren 10eko ekitaldian parte hartzeko dei berezia egiten dihardute antolatzaileek. Giza katean parte hartzeko izena eman, besterik ez da behar. Horretarako interneten, gureeskudago.eus helbidean sartu edo, bestela, bihar goiz osoan Untzagan ipiniko duten mahaian ere izena emateko aukera egongo da. Bost euroren truke giza katearen zapia jasoko duzue.

Orain dela lau urte osatu zen giza katea herri askotatik pasatu zen, baina ez hainbeste hiriburuetatik. Aurten, oster, Do-

nostia, Bilbo eta Gasteiz batuko ditu giza kateak. Hiriburuetan antolatu dira ekintzak eta, Eibar ere ekintza horien agendan sartzeko, ahalegin berezia egin dute Eibarko Gure Esku Dago taldekoek.

Egunerako plana

Ekainaren 10ean goizeko 11:00etan bakoitza bere kilometrora gerturatu beharko da. 71. kilometroa, gazteen kilometroa, Urkizu aldean egongo da, Azitaingo gasolindegian hasi eta Urkizuko parkeraino eta Elektro-Txufa elektrotzarangak girotuko du. 72. kilometroa, berriz Agiñaspi tabernatik Ego Gaineraino joango da eta Eonien elektrotzarangak lagunduko die. Eta 73. ki-

lometroa Ego Gaineratik Amañara bitartera joango da eta, hori girotzen, Eibarko trikitilariak jardungo dute.

Tarte bakoitzean elkartzen joan ahala, bakoitzak giza katean tokia hartu beharko du eta 12:00etan giza katea egingo da. Ekintza amaitzerakoan, 12:30ak inguruan, musikariak lagunduta Untzagara joango da jende guztia eta han Parrapas taldearekin erromeria hasiko da, 13:00ak aldera. Ondoren, 14:30ak aldera herri-bazkaria egingo da Untzagan, Biziminarenean eskutik. Bazkarirako txartelak eguen eta barixaku arratsaldetan Deporren eros daitezke eta, horrez gain, bihar goizean 10:00etatik 15:00etara Untzagan egongo den mahaian ere salgai egongo dira. Langileek 15 euro ordaindu beharko dituzte eta ikasle, langabetu eta umeek, berriz, 12 euro. Eta, bazkalostea girotzeko, kontzertuak antolatu dituzte giza katearen egunerako abestia sortu duen La Basu eta Koban taldearen eskutik.

Boluntarioen premian

Jakina, egun horretarako antolatu dituzten ekitaldi guztiak biribilak izateko, antolakuntza lanetan jende asko mugiarazi beharko dutela argi daukate antolatzaileek eta, hori dela eta, laguntzeko prest dagoen jende guztiari dei berezia egin nahi diete, ekainaren 6an, 19:00etan, Kultun egin-gin duten batzarrera joateko.



Azken asteotan egindakoaren bidetik, bihar ere goiz osoa emango dute Untzagan izena eman nahi dutenei zein bazkarirako txartela erostera doazenei harrera egiteko prest.
Maialen Belaustegi

Zergatik joan GIZA KATERA?

Erabakitzeke eskubidea gauzatzeko aukera berriak sortu daitezkeen honetan, HERRITAR GUZTIOK EZINBESTEKO GILTZA GARELAKO.

Euskal herritarrok gure etorkizun politikoa libreki eta demokratikoki erabakiko dugun ZIKLO BERRI BAT IREKI NAHI DUGULAKO.

Gure eskubideak eta erabakia defendatuz eta egikaritzuz, ETORKIZUN HOBE BATERA JAUZI EGINGO DUGULAKO.

Epe luzerako elkarbizitza eraikitzeke, ERABAKIAK BATU EGITEN GAITUELAKO.

Elkarri eskua emateko MILAKA ARRAZOI DITUGULAKO.

Herri gisa jarduteko eta guztiok bat egiteko GARAIA DELAKO.

Galdu ezin duzun ESPERIENTZIA AHAZTEZINA IZANGO DELAKO.

Herri libre batean ZORIONTSU IZAN NAHI DUGULAKO.

Hemen zerrendatzen diren arrazoiak baino ASKOZ ERE MOTIBO GEHIAGO DITUZULAKO.

ETORKIZUNA ZU ZARELAKO.



Aurrekoan bezala, airetik hartuko dira giza katearen irudiak.



Portalean egin zuten ekitaldiaren aurkezpena.



Giza katearen inguruko kamisetak eta zapiak saltzen dabiltza.

Hormak eta harresiak ez ditugu maite...

Hala dio ekainaren 10erako Gure Esku Dagok deitu duen giza katerako Aneguriak eta **La Basuk** elkarrekin osatu duten abestia. Gorka Suaia eta Ibon Larruzeak ere parte hartu dute, Selektia Stepik eta dantzari talde zabal batek ere bai, tartean dira Kukaikoak, adibidez, Jon Maya koreografo errenteriarra buru. Egileek diotenez, Euskal Herri osoa dantzan jartzera etorri den abestia da. Hortaz, dantzarako prestatzen joan!



Malen Txurruka, Eider Clavel, Nerea Alkoba, Miren Santillan eta Nagore Andikoetxea (Saharako umeentzako udalekuetako begiraleak)

“Esperientzia berri bat bizi nahi dugu udalekuetan”

Ikastaroa amaitu berri dute 16-17 urteko neska hauek eta udako oporrei begira daude. Aurtengoak, hala ere, opor bereziak izango dira eurentzat, Arrasate eta Larrabetzun Saharako umeentzako antolatu diren udalekuetan begirale moduan ibiliko dira Oporrak Bakean programaren barruan. Lehen aldia izango da eurentzat eta gogotsu daude Saharako umeak ezagutzeko. Ekintza eta emozio handiko uda dute aurretik.

- Saharako umeentzat antolatu diren udalekuetan begirale izango zarete. Nola sortu zen bertara joateko aukera?

Lau hilabeteko oporrak dauzkagu udan eta zerbait egiteko gogoia genuen. Monitore edo begirale moduan ibiltzea zen gure asmoa eta Astixara jo genuen Afariketetan begirale moduan lan egiteko, baina kontua da 18 urte baino gehiago izan behar ditugula horretarako. Beraz, Eibar-Sahara elkarteko Edurne Uzkudunen telefo-

noa eman ziguten. Gure asmoen berri eman eta zer egin genezakeen galdetu genion, eta horrela sortu zen elkarlana.

- Zer da udalekuetan egingo duzuen?

Oraindik ez dakigu zehatz-mehatz zein izango den gure lana, baina begirale lanak egingo ditugu. Saharako umeak etorriko dira udalekuetara eta eurekin egon, zaindu, jolastu eta abar egingo dugu.

- Zuek guztiok batera zoazte edo bakoitza toki batera joango da? Noiztik nora?

Batzuk Larrabetzu eta Arrasaten egongo gara, bietan, baina beste batzuk batean edo bestean. Uztailean egingo dira udalekuak eta, egongo garen tokiaren arabera astebate, aste bi edo hiru egongo gara.

- Zergatik eduki duzue horrelako ekimen batean parte hartzeko gogoia?

Esperientzia berri bat bizitzearren.

- Aurretik ibili zarete begirale moduan?

Ez, baina gazteagoak ginenean bai joan gara udalekuetara. Iaz, adibidez, udaleku batzuetan egon ginen.

- Zer espero duzue jasotzea edo ikastea esperientzia honetatik?

Saharara boluntario moduan joatea garestia da eta, dirurik ez daukagunez, hemen antzeko esperientzia bizitzeko aukera emango digu honek.

- Prestakuntza jasoko duzue begirale moduan lanean hasi aurretik?

Printzipioz ez, baina bertan egongo da zer egin esango digun jendea. Hori ondo dago, edozein zalantza galdetu ahal diegulako. Gainera, umeek ez dakite gure hizkuntza eta guk euren ere ez; beraz, Saharako emakume batzuk egongo dira umeekin komunikatzen laguntzeko.

- Oraindik zehaztu ez badizuete ere, han nolako ekintzak egitea aurreikusten duzue?

Eguraldiaren arabera ekintza bat edo beste egin erabakitzea gure esku dago. Etxean jokoak baditugu, bertara eramateko esan digute.

- Zenbat ume egongo dira zuen begiraldapean?

Arrasaten hamar egongo dira eta Larrabetzun hogeita hamar.

- Zuetaz aparte, begirale gehiago egongo dira udalekuetan?

Bai. Whatsapp taldea egin dugu bertara goazenekin eta laster bilera egingo dugu.



Orain hasitako oporrak besteei laguntzeko ere baliatuko ditu boskoteak.

Gazte koadrilek

ekainaren 8ra arte eska ditzakete sanjuanetarako dirulaguntzak

San Juan jaietarako gazte koadrilei ematen zaizkien diru-laguntzak eskatzeko epea zabalik dago astelehenaz geroztik. Udaleko Kultura Batzordetik gogorarazi dutenez, "ez dago ez adin mugarrik, ez koadrila bakoitzeko kide kopuru mugarrik. Hori bai, koadrilen izenak eta kamisetetako esloganak edo mezuak euskaraz izan behar dira".

Eskaera egiteko honako pauso hauek jarraitu beharko dituzte gazteek: kamisetak, instrumentuak edo bestelakoak erosiko diren dendetan aurrekontua eskatu beharko dute; aurrekontuan enpresaren izena, telefonoa, helbidea, posta elektronikoa eta IFK agertu beharko dira, zer erosiko den eta zenbateko kostua (BEZ barne) izango duen zehazteaz gain. Baldintza horiek betetzen dituen aurrekontua eskuan, taldearen izena eta ordezkariaren izena eta kontaktua Kultura Sailean (Portalean, 1. solairuan) entregatu beharko dituzte edo, nahiago izanez gero, posta elektronikoz bidetzatuz kultura@eibar.eus helbidera bidali.



Eskaerak jasotzeko epea ekainaren 8an, 12:00etan itxiko dute. Jarraian udalak proposamen guztiak aztertuko ditu eta aurrekontuan diru-laguntza horietarako duen dirua taldeen artean banatuko du. Koadrila bakoitzari zenbat egokitu zaion jakinaraziko diotela aurreratu dute.

Koadrila bakoitzak ekainaren 29a baino lehen Kultura Sailera bidali beharko ditu fakturak (fakturan eman zaien zenbate-

koa agertuko da, BEZ barne eta Eibarko Udalaren izenean egingo da, IFK: P2003100A). Bestalde, gastua ordaindu-takoa baino handiagoa izanez gero, aldea koadrilak ordaindu beharko duela argi laga nahi dute. Informazio gehiago nahi izanez gero zuzenean Kultura Sailera jo dezake (Portalean, 1. solairuan), 943708435 telefonora deitu edo kultura@eibar.eus helbidera idatzi.

Astelehenean zabalduko da matrikulazioa Oinarrizko Lanbide Heziketako Udal Institutuan

Azitainen dagoen Oinarrizko Lanbide Heziketako Udal Institutuak ekainaren lehen hamabostaldian zabalduko du 2018-2019 ikasturterako aurrematrikulazioa. Amaitzen dagoen ikasturte honetan 18 eta 30 urte bitarteko 60 neska-mutiek jardun dute bertan ikasten Ikastetxe honetako eskaintza DBK-ko 2. maila gainditu duten eta irakasleen gomendioz bide alternatiboak bilatzen dituzten ikasleei zuzenduta dago. Gaur egun etxebizitzaren mantentze lanetarako oinarrizko profesionala izateko ikas dezakete edo, bestela, sukaldaritza eta jatetxe arloan lan egiteko prestatu. Ziklo hauek bi urteko iraupena dute eta lantegietan egindako praktikak eskaintzaren barruan sartzen dira. Matrikulazioa ekainaren 4tik 15era bitartean egongo da zabalik eta institutuan egin beharko da. Informazio gehiagorako bertara joan daiteke, info@impfibeibar.org helbidera idatzi edo 943208126 telefono zenbakira deitu.



Izadi
LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

Radio Eibar
CADENA SER
104,0 FM

San Andres Gozotegia

- tartak
- enkarguak
- etxera

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73

ZAPATU GOI ZA artisauen



eta baserritarren AZOKAN





KALIAN JOLASIAN



AZOKA



ELEKTRO-TXARANGA



KANTU-AFARIA

DANTZA-JAIALDIA



ARGAZKIAK.
Maialen
Belaustegi



HERRI-BAZKARIA



osasun DOSIAK



iokin elortza
BOTIKARIA

Omeprazola

Omeprazola, gaur egun gehien erabiltzen den botiketako bat da zalantzarik gabe; eta dituen indikazio nagusiak, erreflujoak, ultzerak eta Zollinger-Ellison gaitzak badira ere, gaur egun botikaren erabilera hedatu egin da eta askotan gaitz horiek ez ditugunean ere eta inolako kontrol medikorik gabe erabiltzen da.

Omeprazolak funtsean, sabelean daukagun azidototasun maila jaitsi egiten du, baina kontuan izan behar dugu azido hau oso garrantzitsua dela liseriketa egiteko, hainbat substantzien absorzioan eta gaitzak sor diezaguketen agente askoren kontra.

Era berean, gure gorputzean azido honek kalterik ez sortzeko, sabelean eta esofagoan babes neurriak ditugu, maila handi batean mokoia, eta sabeleko gaitzak somatzen hasten ditugunean ez dira izaten azido kopurua haunditu egin zai-



gulako, baizik eta daukagun babes hori, mokoia alegia, kaltetua daukagulako.

Beraz, gaitza babes hori kaltetua daukagulako somatzen badugu, eta horren aurrean hain garrantzitsua dugun azidoa (gogoratu liseriketa etabar!) jaistera jotzen badugu etxea teilatutik hasiko dugu.

Hau da, babesten gaituen mokoia osatzera jo behar genuke, eta ez egin ohi dugun bezela, azidoa jaistera.

Badugu erronka beraz, produktuak badaude, neurriak baditugu, has gaitezen sabeleko arazoak egoki osatzen.

Bikote guztiak ez dira urteekin aspertzen

Galdera arrunta da, batez ere gazteen artean: "bikoteak ez al dira denborarekin aspertzen?" Egiatzkoa da uste hau? Lehenik eta behin *nekea* eta *ohitzearen* artean bereiztu beharra dago. Bigarren terminoa azaltzen hasiko gara: *ohitzea*. Etxean gaude, lasai irakurtzen edo sakeleko telefonoari begira... euriak kalean egiten duen soinu entzuten dugu fondo moduan. Apurtxo bat geroago ez dugu euriaren soinu somatzen, ez badiogu arreta berezia eskaintzen. Zer gertatu da? Gure burmuina ohitu egin da soinu hori entzuten eta jadanik ez dio arreta berezirik eskain-

itzen, nahiz eta soinu-estimulu horrek zure inguruan egoten jarraitzen duen. Euriaren soinu entzutera ohitu gara.

Egoera berbera, baina entzuten duguna aldameneko etxebizitzako obrak dira. Zarata horrek ondoeza eta deserosotasuna sortzen digu eta amaitzea nahi dugu. *Nekea* sortzen digu. Estimulu batek sentsazio desatseginak sortzen dizkigunean, ez gara hain erraz ohitzen. Beste adibide bat: Horman munduko koadrorik ederrena jarriko bagenu, denborarekin ikusten ohituko ginatke eta ez liguke hasierako erreakzio bizia sorraraziko. Egunero ikus-

ten ohitu gara. Honek ez du esan nahi ez zaigunik gustatzen, edo molestatu egiten gaituenik. Ez gara nekatu, berriro ere kasu egiten badiogu, inpresio atsegina eragiten digulako. Baloratu egiten dugu berriro ere.

Nekea terminoa *ohitzea*-ren sinonimo bezala erabiltzen dugu, eta ez da horrela. *Nekea* asperdurarekin, behingoz amaitzea nahi duzun sentsazio negatiboekin lotuta dago. Bateron batekin edo zeozerrekin ohitzen zarenean ez zaitu zergatik molestatu behar.

Hori gertatzen da denboran dirauten harremanekin: ohitura bat sortzen da, jadanik ez da bizitzen maitemintze etapan, non guztia muturreko intentsitatea baitzen, baina baita efimeroa ere. Baina horrek ez du esan nahi zure bikoteak *neka*-

arrantza
alvarez
SEXOLOGOA



tu egiten zaituenik. *Neke* horretara ailegatzen da harremana ez bada zaindu: ez gaitu molestetzen maite gaituenak eta maite dugun horrek. Amodioa iraunkorragoa eta egonkorragoa da: bidea eraikitzen du. Arazoa etor daiteke norbaitek berrikuntzak eta intentsitatea modu jarraituan bilatzen dituenen. Errutina zerbait ezkor bezala ikusten badugu eta horrekin modu indibidualean amaitu nahi badugu, guztiak asperraldi-sentsazioa emango digu. Ona da aldaketak bilatzea bizitzari berritasunak gehitzeko, proiektu berriekin motibatzea, baina bikote moduan ere egin daiteke.

IKUSTEKO: "AMOUR"



Bolari Egun handia ospatuko dute bihar Elgetako bolatokian

Ohikoa denez, Gipuzkoako hiru-txirlo txapelketa amaitu eta hurrengo asteburuan Bolari Egunarekin izaten dute hizordua bolariet. Eguna omenaldia egiteko ere aprobetxatzen dute eta oraingoan Biotza Azpiri eta Arlindo Almeida izango dira ohore hori jasoko dutenak. Eguna goizeko 11:00etan jokatuko den jaurtialdiarekin hasiko da eta, ondoren, Lehendakari Txapelketa izango da jokoan, aurreko asteburuan amaitu zen Gipuzkoako txapelketako 64 bolari onenekin. Kanporaketa erara jardungo dute (lehenengoa 64. postuan sailkatu zenaren aurka, bigarrena azkenaurrekoaren kon-



Gorka Etxaniz txapeladuna, Unai eta Xabier Loiolaren artean.

tra...) txapeladun bakarria geratu arte. Jarraian bazkaria egingo dute bolatokian bertan eta gero garaikurrak eta txapelak

banatzeko ordua helduko da, Arritxaren musikak girotuta.

Gipuzkoako 49. hiru-txirlo txapelketari dagokionez, Flore-

agako Gorka Etxanizek jantzi zuen txapela, San Migueleko Unai eta Xabier Loiolaren aurretik. Asola Berriko Sergio Rodriguez laugarren geratu zen eta Bittor Ugarteberu seigarren. Azken hau onena izan zen nagusien mailan, eta Bittor Astigarraga hirugarren maila berean. Bestalde, Kepa Rodriguez nagusitu zen alebinetan eta Josu Urkia benjaminetan. Asola Berrikoen ohorezko postuekin amaitzeko, taldeka bigarren postuan sailkatu zen, Elgoibarko San Migueletik lau txirlora. Floreagako azken tiraldian etxeko Santos Muñoz nagusitu zen, Sergio Rodriguez eibartarraren aurretik.



Euskal Ligara igo ez izanak ez du iluntzen Haritzaren denboraldia

Urduritasunak gaina hartu ziren Eibar Eskubaloiairen gizonetako bigarren taldeko jokalariei aurreko asteburuan Ipuruan zaletuaren aurrean jokatutako Euskal Ligarako azken fasean. Hala ere, jakin izan zuten finalerdikoa gainditu eta finala jokatzeak aukera izatea, azken urrats horren faltan geratu baziren ere. Zapatuan 27-25 nagusitu ziren eibartarrak Egiaren aurrean, batez ere Ander Ezenaroren 10 golei eta Ander Fernandezek zazpiei esker, atsedenaldira 14-10 aldeko markagailuarekin erretiratu eta gero. Egun bereko beste partiduan Muskizek 30-28 irabazi zion Escolapiosi.

Igoera jokoan zegoen domekako partiduan, baina hasierako ordu laurdena kenduta, eibartarrek ez zuten joko zuzena egiten asmatu eta bizkaitarrek gehiago izan ziren, amaieran 23-28 galtzeko; atsedendian ere 13-15 zihozten atzetik. Jorge Ezenarrok sei gol sartu zituen partidu horretan ere, Ander Fernandezek lau, eta Julen Gomezek eta Mikel Oregik hirun. Zaletuaren erantzuna bikaina izan zen, Eibarren eskubaloiak duen jarraipenaren seinale.

Martitzenean Eibar Eskubaloiak urteko batzarra egingo du Portaleko areto nagusian, 19:00etan hasita.

Bar Txoko eta Garajes Garcia foball-zaletuaren Kopako finalean

Foball-zaletuaren liga irabazi ondoren, Kopako finalean izango dugu Bar Txoko finalerdian Esmorgari 1-0 irabazi ondoren, Aranaren gol batekin. Garajes Garcia ligako hirugarrena izango du aurkari, azken honek finalerdian erraz irabazi baitzuen Durangori (5-0). Ikerrek bi gol sartu zituen eta Aitorrek, Mujikak eta Arrizabalagak bana. Finala hurrengo asteburuan jokatuko da (hilaren 9an, 09:30ean), oraingo honetan kontzertua izango baita Unbeko instalazioetan.



Eibarko Errealzaleak-ekoek urteroko bazkaria egin zuten

Eibarko Errealzaleak peñakoek bazkaria egin zuten aurreko zapatuan Jaiki soziedatean, giro paregabe bizi izandako jardunaldiaren barruan. Egon zen tarte ere sorpresak eta sariak banatzeko bazkarian izan ziren 40 lagun artean, eta oraingoan ere ("eta 21 urte dira dagoeneko") Alberto Albistegi jokalaria-ohiak parte hartu zuen.

Kirol instalazioak egiteko bi proiektu ditu esku artean Eibar FT-k

Astlehenean Ipuruan egindako lan-gosarian, Amaia Gorostiza presidentea, Mikel Larrañaga Fundazioaren presidenteordea eta Patricia Rodriguez zuzendari kudeatzaileak amaitu berri den denboraldia aztertu eta klubak etorkizunean izango dituen erronken errepasoa egin zuten. Kirol instalazio berriak non joango diren inguruko erabakiak eta Mendebaleko Gol Tribunako obrek hartu zituzten pisu handiena. Presidenteak aurreratu zuenez, 11.000 akziodunek erabakiko dute udan egingo den Ezohiko Batzarraren instalazioak non joango diren: *"Bi aukera daude mahai gainean, bata Eibarraren eta bestea herritik kanpo. Bihotzak Ei-*



barren alde egiten badigu ere, kanpoan espazio gehigo izango genuke eta, gainera, terrenoak merkeagoak dira". Bestalde, tribunako lanak hasita daude honezkero eta, behin lan horiek amaituta, Ipuruko 8.050 lagunentzako aforoa izango du.

Udako Kanpusaren erdia beteta

Udako Kanpusak bosgarren edizioa beteko du aurten eta, klubetik diotenez, *"Fundazioari 40.000 euroko ekarpena egiten dio"*. Bi txanda izango ditu aurtengo Kanpusak: ekainaren 25etik 30era egingo da lehenengo eta uztailaren 2tik 7ra bigarrena. Oraindik aukera dago bertan parte hartzeko izena emateko.

Bestalde, ekainaren 6an Ipuruan egingo den "Fútbol: la suplementación en el rendimiento" Udako Ikastaroa mahainguru batekin amaituko da: hor izango dira Markel Irizar, Helene Alberdi, Eli Ibarra, Natxo Lezkano eta Leire Olaberria, Jose Luis Mendilibarrekin batera.

Emakumezkoen errugbi taldeak Valentziako sevens nazio-txapelketan hartuko du parte

Txapelketa bihar jokatu da Valentziako Olvidan eta datorren urteko Erreginaren Kopa jokatzeko faseetako bat izango da. Taldeak egin duen aurrerapenaren sari gisa, eta Guridi tabernaren eskutik, hartuko dute parte zazpiko modalitatean jokatu den txapelketan. Madrilgo CRC eta Arquitectura, A Coruña CRAT eta Valladolideko VRAC izango dituzte aurkari 14 minutuko partiduetan, zazpiko bi zatitan banatuta. Hamabi jokalarirekin aurkeztuko da Eibar Rugby taldea, guztiak ere "jokalariazkarrak, gogorak eta joko taktika,



plakaje eta baloi-pase onarekin". Maitane Amundarain eta Alejandra Fernandez baja izango dira, min hartuta baitaude. Ikusten denez, emakumezkoen taldeak historia egiten jarraitzen du eta oraingoan lehen aldiz hartuko dute parte nazio-txapelketa baten.



Iñigo Agirre, gorritz, eskuma aldean poltsa arrosa batekin.

Iñigo Agirre hirugarren izan zen Martin Fiz maratoi-erdian

Guar egun Mutrikun bizi den Iñigo Agirre eibartarrak hirugarren postuan amaitu zuen Gasteizen jokatuako maratoi-erdiaren proban. Orubete, 13 minutu eta 50 segundo behar izan zituen proba amaitzeko eta lasterketako beterano onena izan zen. David Maganek irabazitako proban, Raul Alvarez izan zen bigarren.



da denbora gutxian eta hilaren 9an (zapatua) goizez, 10:00etatik 14:00etara, Saskibaloia

Eguna egingo dute Untzagan, "jendeari kirol modalitate hori gerturatu eta ezagutzeko".

Herriko saskibaloia taldeak bere eguna ospatuko du hilaren 9an

Katu Kalek oraingoan ere ez du maila igotzea lortu (epai-leek ere ez zioten larregi lagundu azken partidu erabakigarrian), baina ez du itxaropenik galtzen eta hurrengo denboraldian ere probintziako 2. mailara igotzeko helburuarekin hartuko du parte. Talde nagusitik aparte, ez du baztertu iaz hasitako harrobi lana eta gaz-

teen taldeak denboraldia agurtu zuen aurreko asteko asteburuan. Donostian GBC-ren aurka jokatuako neurketa eibartarrentzat izan zen (45-54) eta sari berezia ere izan zuten: garaipena lortu ondoren aukera izan zuten ACB Ligako Delteco eta Joventut-en arteko partidua ikusteko, donostiarrek gonbidatuta. Taldea asko hazi

Gipuzkoako federatuen txapel birekin bueltatu ziren Deporreko atletak



Arrasatera joandako Deporreko ordezkartzak bikain jardun zuten.

Aurreko asteburuan Donostian jokatu ziren federatuen mailako Gipuzkoako txapelketa absolutoak eta Klub Deportiboko atletak goi mailari eutsi zioten berriro ere. Horrela, Markel Gutierrezek txapela jantzi zuen 5.000 metroko martxan (23:51), Eneko Osoro taldekidea (27:08) bigarren izan zen proban. Txapela jantzi zuen Andoni Egurrolak ere, azken honek jabalina jaurtiketan (51,99 metro). Andoni Calvanok lan bikaina egin zuen: 200 metroko lasterketan bigarren

sailkatu zen eta laugarren 100 metrokoan. Elena Susaeta ere ez zen atzean geratu eta hirugarrena izan zen pertika jauzian. Eta Julen Teranek zazpigarren amaitu zuen distantzia erdiko 1.500 metroko lasterketa.

Bestalde, Arrasatek hartu zuen Euskal Kirol Jokoetan Eibarko bi taldek hartu zuten parte, emaitza paregabearekin gainera: Mogel Isasi talde onena izan zen mutiletan eta La Salle Isasi hirugarren sailkatu zen nesketan.

Waterpoloko alebin taldea bigarren geratu zen Zaragozako torneoan

Urbateko alebin mailako taldeak lehiaketa bikaina egin zuen Zaragozan jokaturako Rafa Feliz Torneoan. Hamasei taldek hartu zuten parte guztira, Madrildik, Kataluniatik eta Euskal Herritik joandakoak, eta eibartarrak bigarren postuan sailkatu ziren, joko zoragarria eginez. Unax Azpiri kapitainarekin honakoek osatu zuten taldea: Aiora Unzeta, Unai Bisquert, Alazne Ziar-solo, Aitor Sanchez, Iñaki Etxebarria, Paul Alberdi eta Ander Treviño.

Bestalde, senior mailako talde biek denboraldiko azken partidua jokatu zituzten eta, zirt edo zart egiteko azken jardunaldian, gizonezkoen taldeak Euskal Herriko Ligaren 3. postua eskuratu zuten WP9802 taldeari 12-7 irabazi eta gero; baina emakumezkoen taldeak ez zuten zorte bera izan eta, Leioarekin 9-6 galduta, laugarrenak izan dira Euskal Herriko Liga nagusian.



Eibar FTko emakumezkoen Lurraldeko taldeak ez du maila igo, baina gizonezkoen jubenil mailako bigarren taldeak bai

Eibar FT-ko hainbat ordezkari asteburu interesgarriari egin zioten aurre, sari potoloak zituztelako jokoan. Orokorrean oso goi mailan jardun dute denboraldi guztian, baina sari garrantzitsuenak zailak izaten dira erdiesteko. Horren adibidea izan dugu azken asteburuan: mutilen jubenil mailako bigarren taldeak, orain dela bi aste Añorgarekin penaltietara jokatu zuten ia amaiezinezko txandaren ondoren, oraingoan bai nagusitu zirela Unben jokaturako triangularrean eta, Leioa B-ri eta Lakuari irabazita, orain dela lau urte galdutako maila berreskuratu dute. Ez zuten zorte bera izan emakumezkoen bigarren taldeak, Lurralde mailan jokatzen duen (eta datorren denboraldian bertan jarraituko duen) hamaikakoak 3-1 galdu baitzuen Azkoitia Anaitasunarekin Ligako azken jardunaldian. Eibartarrek berdinketa nahikoa zuten maila igotzeko, baina hori ere ezin izan zuten lortu eta azkoitiarrak, puntuetara eibartarrekin berdinduta amaitu ondoren, izango dira igoko dutenak. Hala ere, denboraldi bikaina egin dute Eibar FT-koek.




Ane Ziaran bigarren Guadalajarako proban

Saltoki taldearekin parte hartzen duen Ane Ziaran eibartarra azpitxapeldun izan zen Guadalajarako distantzia erdiko triatloiarren taldekako sailkapenean. Bost ordu, 24 minutu eta 36 segundo behar izan zituen Ziaranek proba egiteko eta hiruko taldeak 16 ordutan amaitu zuen. Bestalde, Delteco herriko taldea azken asteburuan presente izan da Calellan, Bartzelonako Ironman 70,3 proban eta San Vicente de la Barquerako triatloio esprintean. Lehenengokoan Ioseba Tamayo 112. postuan helmugaratu zen, 2.800 parte-hartzaileen artean, 4h52'12" denborarekin. Kantabriako bigarrenengoan Esther Pagei eta Moises Altuna izan ziren: azken hau 83. postuan helmugaratu zen (1h29'53") eta Pagei 127. postuan (1h42'59").

Pagei eta Altuna proba hasi aurretik..





BAKARNE ELEJALDE: Txonta.

Astlehenean aurkeztu zuen Portalean "¡A dieta! En la vida real" nobela. Orain dela hiru urte zabaldu zuen blog-etik abiatuta sortu du, dieten gaia tratatzeko, "baina modu entretenigarri eta desmitifikatzailean". Silvia Zuluaga Eibarren jaio zen eta oraindik kontsulta pasatzen du, astean behin, Eibarko Zentro Medikoan. Donostian eta Irunen ere baditu kontsultak. Medikuntza ikasketak egin zituen Nafarroako Unibertsitatean eta Bordelekoan Dietetika eta Elikagaien Higienea diploma eskuratu zuen. Bere lana pazienteei hobeto jaten erakustea da; baita argaltzen laguntzea ere. Horretarako idazten ditu elikadura eta pisuari buruzko artikuluak ere. Liburua 15 eurotan dago salgai Yraolagoitia liburutegian eta baita on-line ere.



SILVIA ZULUAGA (nutrizionista):

"Asteburuak dira dietekin aurrera egiteko aurkari gogorrenak"

- Zergatik liburua? Nondik etorri zitzaizun ideia? Zein asmekin argitaratu duzu "¡A dieta! En la vida real"?

Badira hor hainbat helburu, edo behintzat, gauzak argitzeko asmoa. Mito ugari zabaldu dira nutrizioaren eta elikaduaren inguruan, eta nire ekarpena egitea proposa iruditu zitzaidan. Badira hiru urte ere blog-a zabaldu nuela eta hor ahalegintzen naiz jendearengana gerturatzeko, ahal duan neurrian laguntzen. Hau beste urrats bat izan da.

- Idatzitakoari nobela forma emateak ere badu bere esanahia, ezta? Aholku liburu batetik ihes egin duzu.

Jakina. Uste dudalako irakurleari lana errazten diodala bide horretatik. Kaleko lengoia erabili dut eta liburuan azaltzen direnak pertsona arruntak dira, zu eta ni modukoak, lagunak dituztenak eta euren bizitzetan guregandik urruntzen ez direnak. Gizartearen erretratoa egin nahi izan dut, jendea identifikatuta sentitu dadin, ikus dezan zelako tentazioak ditugun bizitza errealean.

- Horretarako kontsultan hartu duzun jendea erabili duzu?

Ez bakarrik. Ez dago pertsonarik bere osotasunean hartuta, baizik batzuen eta besteen ezaugarriak dituzten konglomeratuak. Eta kontsultan izan ditudan espezieziki batera, badira beste arlo batzuetan ezagutu izan ditudanak laga didatena, lagunak direnak...

- Dietak abentura bat dira? Zein da arazo larriena dieta bat jarraitzeko orduan?

Argaltzea nahi izanez gero, behintzat, asuntza ez da erraza. Aurkari indartsuena asteburuak dira, eta horiek guk ezin ditugu ezabatu. Astegunetan errazagoa egiten zaigu dieta jarraitzea, baina asteburuak helbururik. Horretatik liburuan ere ahalegintzen naiz irakurleari beste irakurketa bat eskaintzen: testua erraztuz eta umore dosiak ezarriz. Mezu bat helarazi nahi izan dut eta, horretarako, berori harrapatzeko oztopoak baztertu ditut. Azken batean, dieta bat jarraitzea gure erabakia da, inguruak ez digu lagunduko.

- Zenbat iraun behar du dieta batek? Noiz komeni da hastea?

Dieta deitzea ere ez dut oso gogoko. Elikadura osasuntsuaren alde egingo nuke gehiago. Argaldu nahi izatea ondo dago, baina kilo batzuk galdu eta, berriro lehengora bueltatzen bagara, horrek ez gaitu osatuko. Jendea dietarekin hasteko pisu-arazoak, osasun inguruak (diabetesa, hipertentsioa) eta alde estetikoak izaten ditu kontuan, azken hau autoestimarekin lotuta doana. Liburuko protagonista ere horrela abiatuko da, bere burua ispluan errekonozitzen ez duenean, erropa txiki geratzen zaionean bultzatuta... Horrelako portaerak erraz errekonozituko dituzte irakurleak.

- Badira, dena dela, aholku batzuk nahiko zabaldua daudenak: gosariari indar gehiago emateko eta afariari gutxiago, esateko...

Hori ere ezin da orokortu, aholku orokorrak ez dira denentzako. Beste arlo askotan moduan, hemen ere pertsonalizatu egin behar da, eta lortu nahi duzunaren arabera jokatu. Pertsona bakoitzaren apetitoak esango digu zelana jardun.

- Kanpotik datozkigun aholkuak ere hainbatetan aldatzen joaten dira: arrautza kaltegarria izatetik egunerokoa bihurtzeraino...

Nutrizio zientzietan asko aurreratu da azken aldia eta ikerketa-lan asko egin dira. Hori alde batetik. Baina, bestetik, badira ere interes komertzialak tartean eta, horrez gain, asko jokutzen da jendearen itxaropenekin baita, sineskeriak ugaltzeraino.

- Dietetan baino, ohitura osasuntsuetan izango da orduan gakoa.

Elikagai osasuntsuen bidetik jo behar da, ez delako une baterako kontua, baizik eta luzarorako. Hori bai, jakinda, behin edo behin, toreatzen. Arazo larriena ultraprozesatuen bidetik dator, erraz jotzen delako eurengana. Eta hobe da fruta osoa jatea zukua hartzea baino, eta hobe azken hau brik-etakoa baino. Eta garrantzi handia du jasotako informazioak: kontraesankorra askotan, ezkutuko publizitatea tartekatuz, interes asko jokoan...



CRISTINA AZPIRI, ELISABETH EGUREN eta ESTEBAN OROZ

“Herri guztia paperezatu genezake gure koadroekin”

Untzagako zentro sozialak Cristina Azpuri, Elisabeth Eguren eta Esteban Oroz margolarien erakusketa jasoko du ekainaren 14ra arte (astegunetan 19:15etik 21:15era, eta asteburuetan 12:00etatik 14:00etara). Urte askotako ibilbidea du hirukoteak eta horren erakusle dira Untzagan ikusgai egongo diren lanak. Gainera, hainbat sorpresa prestatu dituzte erakusketak irauten duen egunetarako.

- Nola sortu zen erakusketa bateratua egiteko aukera?

ESTEBAN OROZ: Eibarko Elkarte Artistikoak Pagei kalean daukan lokalera joaten gara margotzera eta baten bati sortu zitzaion Untzagako zentro sozialean erakusketa egiteko ideia. Elkarteko kide guztiontzat tokirik ez dagoenez, erakusketak hiruak egitea erabaki genuen.

ELISABETH EGUREN: Hiruren artean erraz betetzen da erakustokia. Banaka, ordea, lan gehiago egin behar da.

- Nolako lanak erakutsiko dituzue?

ELISABETH: Olio-pinturak dira gehienak, baina badaude akrilikoak ere.

- Zenbat lan jarri du bakoitzak?

CRISTINA AZPIRI: Espazioaren arabera antolatu dugu erakusketa. Estebanek, adibidez, koadro gutxiago jarri ditu, koadro handiagoak jarri dituelako; guk, ordea, txikiagoak ipini ditugunez, gehiago dauzkagu.

ESTEBAN: Gero, kokapena erabakitzeke, zozketa egin genuen.

ELISABETH: Lagun onek egiten duten moduan antolatu gara, arazo barik.

- Koadroen aukeraketa zaila izan da?

ELISABETH: Bai, koadro gehiegi ekarri ditugu.

ESTEBAN: Herri guztia paperezatu genezake gure koadroekin.

- Koadroen gaiak dagokionez, bakoitzak nahi izan duena margotu du edo antzeko gaiak margotzeko ados jarri zarete?

CRISTINA: Ez, orain arte egin ditugun lanak jarri ditugu. Niri inork ez dit esan “hau edo bestea egin”.

ESTEBAN: Pintura lehiaketetan egindako lanak dira ekarri ditudan gehienak, beraz, ez daukate zerikusi handirik.

ELISABETH: Gehienak lan inpresionistak direla esango nuke, baina ez da aurretik erabakitako ezer izan.

- Pageiko lokallean elkarrekin margotzen duzue, beste lagunen eragina igartzen duzue zuen lanetan?

CRISTINA: Ez, azken aldi gabiltzalako elkarrekin margotzen. Urte asko daramatzagu margolaritzan eta bakoitzak bere bidea jarraitu du.

ELISABETH: Elkarrekin margotzen dugunean aholkuak eta iritziak ematen dizkiogu elkarri, baina beste barik.

- Elkarrekin margotzeak eta erakusketa bateratua egiteak zuen lanak indartzen ditu?

GUZTIEK: Bai!

CRISTINA: Erakusketa egitea erabaki genuenetik indarra hartu eta gehiago margotzen dugu.

- Erakusketak irauten duen denboran zerbait berezia egiteko asmoa daukazu?

ESTEBAN: Zuzenean margotuko dugu eta beste sorpresaren bat ere izango da.

“Idazkera eta idazkiak” tailerra antolatu du Udal Artxiboak barixakurako

Ekainaren 9a izaten da Artxiboen Nazioarteko Eguna, egun horretan ospatzen baita UNESCOk 1948an Artxiboen Nazioarteko Kontseilua sortu izana. Horren harira, Eibarko Udal Artxiboak ospakizun horrekin bat egin eta ekainaren 8rako “Idazkera eta idazkiak” tailerra antolatu du. Pepe Sainz Arabako Probintzia-Artxibo Historikoko zuzendariak gidatuko du tailerra eta, antolatzaileen berbetan, “orain dela ia sei

mila urte Ekialde Ertainean idazkuntza nola asmatu zen jakitetik abiatuta, gaur arte egin duen ibilbidearen urrats nagusiak erakutsiko ditu”.

Pepe Sainzek ariketa praktikoekin erakutsiko ditu dokumentu-euskarrietan eta idazte-materialetan izandako aldaketak eta idazkera-estilo garrantzizkoenak: “Idazkera kuneiformeak zerabiltzan buztinak edo tabillak, argizari-taulatxoak, papiro-bilkarriak, pergaminoak... kalamuak, hegazti-lumak eta plumilla metalikoak, denetik erabili zuten”. Tailerrak ordu eta erdiko iraupena izango du eta goizeko 11:30ean hasiko da, Udal Artxiboan bertan. Lekua mugatuta daude eta, beraz, izena aurretik eman behar da. Lekua gordetzeko 943708422 telefonora deitu edo artxiboa@eibar.eus helbidera idatzi daiteke.

Artxiboen Nazioarteko Eguna / Día Internacional de los Archivos Ekainak 09 Junio 2018

Artxiboak: Gobernantza, Memoria eta Ondarea

Archivos: Gobernanza, Memoria y Patrimonio

Idazkera-tailerra
Taller de escritura

Eguna/Día: Ekainaren 8a/8 de junio
Ordua/Hora: 11:30

Tokua/Lugar: Eibarko udal artxiboa
Archivo municipal de Eibar

EIBARKO UDALA


#IAD18 aldes ICA





Soraluzeko The Crazy Wheels Band taldearen kontzertua etzi eguerdian

Legarren dagoen Tarte kafetegiak "Igande musikatuak" egitasmoari **outsiko dio** ekainean ere eta honezkeroko hilabete osorako egitaraua lotuta daukate: domeka honetan Soraluzeko The Crazy Wheels Band taldeak Ameriketako doinu akustikoak eskainiko ditu. Ekainaren 10ean, berriz, *Toro y la Niña del Frenesí* eibartarrek rock eta soul estiloko bertsoiak joko dituzte. Hurrengo asteburuan, hilak 17an, Londresko Alex Caporuscioren txanda izango da, blues estiloko musikarekin. Eta San Juan bezperan The Billboillies taldekoak Bilbotik etorriko dira kontzertua ematera, country eta rockabilly doinuekin. Emanaldi guztiak 12:00etan hasiko dira eta sarrera doan izango da.



Iraia Santosek saria jaso du "H.C. Andersen-en ipuin bat komikian"-en

2018ko Haur Liburuaren Nazioarteko Egunaren harira antolatzen da 'H. C. Andersen-en ipuin bat komikian' lehiaketa eta Iraia Santos Pagei eibartarra izan da irabazlea euskarazko 'Lehen irakurleak' atalean. 'Berunezko soldadutxoak' liburuan oinarritutako komikiarekin lortu du saria eibartarrak eta, ondorioz, diploma eta liburu sorta bana eskuratu dute Iraia Santosek eta Juan San Martin liburutegiak.



Berbalagunak Hondarribira joango dira bihar Mintza Eguna ospatzera

Bihar euskaraz bizitzearen aldeko aldarrikapena zabalduko dute Hondarribian, jai giro ezin hobean, Euskal Herriko Mintzalagunen jaiak eta Blagan egunak. Blagan euskara elkartearekin bat eginda, Mintza Egunak euskaltzale guztiei euskarari atxikitzeke deia zabalduko die, "mintza taldeetan ereindako olatua, elkarrekin euskaraz aritzeko ohitura, kalera zabaltzeko!". Beste urte batzuetan bezala, oraingoan ere ...eta kitto! Euskara Elkartearen Berbetan egitasmoan parte hartzen duten berbalagunetako batzuk han izango dira, egun osorako antolatu duten egitarauarekin egun ederra pasatzeko prest.

Dibujo eta Zeramikako en erakusketa

Aste honetan zabaldu dute Portaleko erakusketa aretoan Dibujo eta Zeramika udal eskoletako ikasleen ikasturte amaierako erakusketa. Ekainaren 19ra arte egongo da ikustera joateko aukera, martitzenetik domekara, 18:30etik 20:30era.



"Zinema 2018" dantza ikuskizuna

Gaur eskainiko dute ikasturte amaierarako prestatu duten "Zinema 2018" ikuskizunaren 3. emankizuna Biraka dantza taldekoek, Coliseo antzokian, 20:00etan hasita. Sarrerak 3 euro balio du.

Dantza Garaikide Taldea Coliseoan

Datorren astean, martitzen, eguazten eta egunean, 20:00etatik aurrera Eibarko Dantza Garaikide taldearen emanaldia hartuko du Coliseo antzokiak, ikasturteari agur esateko dantza ikasleek prestatu duten ikuskizunarekin Sarrerak 3 euro balio du.

Rosalía de Castrori buruzko saioa

Pagatxa emakume elkarteak antolatuta, astelehenean "Emakumeen Istoriak" egitasmoaren barruan bideo-foruma egingo da Portalean, 18:30ean. Oraingoan aztertuko duten pertsonaia Rosalía de Castro poeta galiziarra izango da eta, saioaren amaieran, bere poemetak bi errezitatuko dituzte.





MALEN ILLARRAMENDI

Zaharkitzapen programatua

Termino ezaguna da guztiontzat iraugitze-datarena. Erosten ditugun produktu galkor guztiek dute bistan epe luzerako edo motzerako kaduzidadea: yogurtek, esnekiek, arrautzek... horraino, ezer berririk ez. Ohituta gaude iraugitze-datarik begiratzeko eta produktua epe hori baino lehen kontsumitzen, gure osasuna kaltetu ez dadin. Baina, badago gure osasunean baino gure poltsikoetan eragiten duen beste data bat, begi-bistan ez dagoena, inork aipatzen ez duena, baina denok sufritzen duguna nola edo hala. Zaharkitze programatuaz ari naiz. Gure gailu guztiek, mugikorrak, tabletak, ordenagailuak, telebistak... denek dute merkaturatu aurretik ezartzen zaien "heriotza-data". Pentsatzen jarri: inoiz iraun dizu mugikor batek 2 urte baino gehiago? Zure ordenagailuak, urteak pasa ahala, askoz mantsoago egiten du lan? Bateria ere denborarekin "nekatu" egiten zaie zure tramankuluei? ... Ez kezkatu! Araoa ez da ematen diezun erabilera okerraren ondorioa. Teknologia bera da erantzulea, beraz, ez dago gure esku aparailuei "bizitza luzatzea". Kontua, betiko moduan, zera da: kontsumoa areagotzea behartzen gaituzte ezinbestean; izan ere, ondo dakite zerbait hondatu orduko jotzen dugula berria erostera, onartu ala ez, denok baikaude gailuen atzaparretan preso.

Ez Dok Fest jaialdiak 18 talderen kontzertuak ekarriko dizkigu Unbera gaur eta bihar

Eguaztenean aurkeztu zuten udal-etxean gaur eta bihar Unbeko kirolgunean egingo den 'Ez Dok Fest' musika jaialdia. Ekitaldian, jaialdia antolatu duten Ez Dok tabernako Jose Guimare eta Beinat Sabanekin batera, Miguel de los Toyos alkatea, Gorka Errasti (EH-Bildu) eta Josu Mendikute (Eibarko EAJ-PNV) Kultura batzordeko kideak, Patxi Lejardi batzordeburua eta jaialdiaren antolakuntzan lagundu duten La Salve garagardo etxeko Jon Ruiz eta Felipe Zamakola Kirol Patronatoko burua egon ziren. Antolatzaileek azaldutakoaren arabera, talde guztiak lotzeak lan handia eman duen arren, "gauzak asko erraztu dizkigute eta hasieratik guran konfidantza izan dute. Udalak ere, jaialdirako tokia lagatzeaz gain, laguntza handia eman digu bete-beharreko baldintzak eta beste hamaika kontu lotzen".

Ekainaren 1erako eta 2rako osatu duten kartelak 18 talde biltzen ditu. Barixakuan Tundra, Belako, Nerabe, Joseba B. Lenoir, Dead Bronco, Jardin de la Croix, Viva Belgrado eta Vulk taldeek jardungo dute eta, zapatuan, berriz, Berri Txarrak, Comité Electrico, Doblecapa, Mud Candies, The Soulbriker Company, Melange, Kokein, Futuro Terror, Biznaga eta Cuchillo de Fuego taldeen txanda izango da. Lehen eguneko kontzertuak 19:00etan hasi eta 03:30ak aldera amaituko dira eta, bigarren egunean, kontzertuak 17:00etatik 03:30era bitartean izango dira. Sarrerak erosteko jaialdiaren webgune ofizia-



lera jo daiteke eta, bestela, zuzenean Ez Dok tabernara joan. Egun bietarako bonoak 49 euro balio du eta, bestela, egun bakarrerako sarrera erosteko aukera ere badago (barixakurako sarrerak 25 euro balio du eta zapatarako sarrerak 30 euro). Horrez gain, Unben bertan leihatila ipiniko dute, nahi duenak sarrerak erosi ahal izateko. Bestalde, jendearen joan-etorriak erraztearren, egun bietan autobus zerbitzu berezia egongo da Txaltxa Zelai eta Unbe artean, kontzertuak hasi baino lehenagotik goizaldeko 04:00ak arte, eta elbarrituentzat egokitutako taxia ere kontratatu dute, norbaitek premia izanez gero erabil dezaten. Trafikoa arintzeko asmoz, barixakutik (15:00etatik) domeka goizera arte automobil partikularrek debekatuta izango dute Unbeko kirolgunea igotzea eta ezin izango da aparkatu Ubitxa kalean, 7. eta 23. zenbakien artean.

Maite Lorenzok errexitazio lehiaketa irabazi du Bilbon

Gure herriko Itzanma poesia tailerreko kideak Bilboko Boulevard lehiaketaren 30. edizioa bereganatu zuen martitzenean. La Bolsa zentro zibikoan jokaturako poesia lehiaketa lehenengoa zen Maite Lorenzorentzat, baina eibartarrak ondo erakutsi zuen arlo horretan duen maila. 18 lehiakide izan zituen aurreneko faseak eta eurretatik hamar pasatu ziren finalera, bertan bi poesia errexitatze-ko: bat denentzat berbera eta bestea bakoitzaren aportazioarekin. Carmen Conderen poesia izan zen guztientzat aukeratutakoa eta Lorenzok M^o Teresa Cervantes Cartagenako poetaren beste "altxor bat" aukeratu zuen. Ezustekoa jasotzeaz aparte, eibartarra pozik dago Eibarko tailerrean egiten den lana ezagutzera ematearren: "Epaimahaia maila handiko jendeak osatzen zuen, Bilbok badu 70 urtetik gorako tradizioa poesiagintzan eta, horrez gain, gurera etorriko direla ziurtatu zidaten". Bestalde, Itzanma Poesia taileraren 5. Urtebetetzea ospatzeko, poesia eta musika batu-ko dituen jardunaldi berezia egingo dute ekainaren 9an, Ibarburutzeko iturrian.



Maite Lorenzo eibartarra, eskumatik hasita bigarrena.



Elektronika Topaketa BERGARAN

Bihar IV. BET - Bergarako IV. Elektronika Topaketa egingo dute Bergarako Kartzela Zaharrean (Bergarako Gaztetxean). Topaketan parte hartuko dutenen artean Mursego eta Olor (Jokin Azpiazu da) eibartarrak daude eta, horrez gain, kartela osatzen, Mazmorra, Acid Fortwins, Manci DJ, Koldo Intermusic b2b Dj Muerto, Gela DJ eta Baleaonda DJ daude. Sarrerak 5 euro balio du.



Txindurri Eguna ERMUAN

Zapatuan eta domekan ospatuko dute Ermuan Txindurri Eguna, izen bereko dantza taldeak antolatuta. Zapatuan, 12:30etik aurrera, dantza-poteoa, dantza-erakustaldia, erromeria eta larraindantza hartuko ditu Orbe kardenalaren plazak eta domekan, berriz, 11:00etan ekingo diote egunari: kalejira, dantza-erakustaldia, herribazkaria eta plaza-dantza antolatuta dituzte, besteak beste.

eguraldia (EUSKALMET.NET)

Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena	Asteartea

hildakoak

- Justino Santos Dominguez. 2018-IV-1.
- Jorge Baskaran Unanue. 51 urte. 2018-V-16.
- Mateo Ogiza Badaia. 85 urte. 2018-V-24.
- Manuel Horma Gandara. 74 urte. 2018-V-25.
- Aurelio Cabo Formoso. 85 urte. 2018-V-27.
- Antonio De Blas Lopez. 67 urte. 2018-V-28.
- Manuel Lemos Fariñas. 87 urte. 2018-V-29.
- Fernando Gonzalez Egaña. 87 urte. 2018-V-30.

jaiotakoak

- Mateo Cabana Gomez. 2018-V-20.
- Iker Tardio Rodriguez. 2018-V-23.
- Elia Da Silva Da Costa. 2018-V-23.
- Mara Isidro Domingo. 2018-V-25.
- Alessandra Guzman Cordoba. 2018-V-25.
- Anaitz Fernandez Abanto. 2018-V-25.
- Libe Sanzol Sodupe. 2018-V-26.

farmaziak

- Barixakua 1**
EGUNEZ Iraundegi (Calbeton, 19)
- Zapatua 2**
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
- Domeka 3**
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
- Astelehena 4**
EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)
- Martitzena 5**
EGUNEZ Mandiola (San Agustin, 3)
- Eguaztena 6**
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
- Eguena 7**
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
- Barixakua 8**
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)

GAUEZ BETI - 2018AN-
Lafuente (Sostoatarren, 10)

SUDOKUA

AURREKOAREN
 EMAITZA

6	2	8	4	3	9	5	1	7
5	4	3	1	6	7	2	9	8
7	9	1	5	2	8	6	4	3
8	1	2	3	9	4	7	6	5
3	7	9	6	1	5	4	8	2
4	5	6	7	8	2	9	3	1
9	6	7	8	5	1	3	2	4
1	3	4	2	7	6	8	5	9
2	8	5	9	4	3	1	7	6

3				1				
	8			7	5		3	
7				3	2	6		
	5		7			6		
4								7
		8			6		9	
	6	1	5					9
	9		8	3			1	
			1					5

telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora010
- Udaletxea943 70 84 00
- Portalea943 70 84 39
- Udalzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa943 82 01 10
- KIUB943 20 38 43
- Epaitegia943 03 34 00
- Iberdrola.....901 20 20 20
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekoa.....943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza943 53 17 00
- Eusko Tren.....902 54 32 10
- Lurraldebus900 30 03 40
- Pesa.....900 12 14 00
- Taxiak943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63

Barixakua 1

EZ DOK FEST

19:00. Vulk.
19:40. Joseba B Lenoir.
20:50. Dead Bronco.
21:55. Belako.
23:15. Toundra.
00:35. Jardin de la Croix.
01:45. Viva Belgrado.
02:50. Nerabe.
 Unben.

DANTZA

20:00. "Zinema 2018"
 ikuskizuna, Biraka
 Dantzaren eskutik.
 3 euro. Coliseoan.

Zapatua 2

KIROLA EUSKARAZ BIZI

09:00. Goiz guztian zehar
 kirol-ekitaldiak: txinga
 eroatea, eskubaloia, pilota,
 boleia, krosa, patinaia,
 kaskara bilketa, sokasaltoa,
 rokodromoa, abiadura,
 futbola, erreleboa.
 Iturburun.

GURE ESKU DAGO

10:00/15:00. Ekainaren
 10ean egingo den
 giza katerako izen-ematea.
 Untzagan.

1988-AN JAIOTAKOAK

12:00. Untzagan batu.
12:15. Talde-argazkia.
12:30/14:30. Ongi Etorri
 taberna kanpoan pikoteoa,
 trikitalariek, eta jokoak.
14:45. Bazkaria eta DJ-a,
 Casinon.

IKASTETXEETAKO PATIOAK ZABALTZEA

16:00/20:00. Arrateko
 Andra Mari, Amaña
 eta Urkizu patioak
 zabalduko dituzte.

EZ DOK FEST

17:00. Comité Eléctrico.
17:50. Doblecapa.
18:50. Mud Candies.
19:40. The Soulbreaker
 Company.
20:30. Melange.
21:50. Kokein.
22:50. Berri Txarrak.
00:25. Biznaga.
01:35. Futuro Terror.
02:40. Cuchillo de Fuego.
 Unben.

Domeka 3

AZOKA

11:00/14:30. Kontsumo
 Arduratsuaren III. Azoka.
 "Zure ravioli agroekologikoak
 egin" umeendako tailerra
 (12:00/14:00).
13:30. Egoaziak
 antolatutako argazki
 lehiaketako sari banaketa.
 Anbulatorioko parkean.



KONTZERTUA

12:00. Igande musikatuak:
 The Crazy Wheels Band
 (Soraluze). Tarte kafetegian
 (Legarre, 19).

TAILERRA

17:00/20:00. Suspertze
 oinarriko teknikak ikasteko
 stand-a, DYA-ren eskutik.
 Untzagan.

Astelehena 4

BIDEO-FORUMA

18:30. "Rosalia de Castro".
 Pagatxa emakume taldeak
 antolatuta. Sarrera librea.
 Portalean.

HITZALDIA

19:00. "Natura,
 ongizatearen oinarria",
 Ibone Ametzaga Arregiren
 eskutik (euskaraz).
 Portalean.



Martitzena 5

IKASTEN

16:00/19:00. Punto-tailerra.
17:00/20:00. Joskintza-
 tailerra. Portalean.

DANTZA

20:00. Eibarko Dantza
 Garaikidea taldearen
 emanaldia. 3 euro.
 Coliseoan.

Eguaztena 6

PROIEKZIOAK

18:00. "Bideak zabalduz"
 proiektuko laburmetraiak.
 Portalean.

GURE ESKU DAGO

19:00. Ekainaren 10eko
 giza katea antolatzen
 laguntzeko prest dauden
 boluntarioentzat batzarra.
 Arrate Kultur Elkartean.

EIBARKO KANTUZALEAK

19:00. Abesbatzaren
 entsegua. San Andres
 elizako lokaletan.

DANBORRADA

19:00. San Juan jaietan
 umeen danborradan parte
 hartuko dutenentzat
 entsegua.

20:00. Helduen
 danborradarako entsegua.
 Bittor Sarasketa kalean
 udalak duen lokalean
 (Beistegi eraikinean).

DANTZA

20:00. Eibarko Dantza
 Garaikidea taldearen
 emanaldia. 3 euro.
 Coliseoan.

Eguena 7

TAILERRA

10:30. Argitu tailerra,
 hirugarren adinekoei
 zuzenduta. Untzagako
 jubilatutako etxean.

KALEETAN KANTUZ

17:00. Dantza
 (beheko maila).
18:00. Dantza
 (maila altua).
19:30. Abesbatzaren
 entsegua. San Andres
 elizako lokaletan.

DANBORRADA

19:00. Amañako jaietan
 umeen danborradan parte
 hartuko dutenen entsegua.
20:00. Helduen
 danborradarako entsegua.
 Amañako ikastetxean.

GURE ESKU DAGO

19:00/20:30. Ekainaren
 10ean egingo den
 giza katerako izen-ematea.
 Klub Deportiboan.

DANTZA

20:00. Eibarko Dantza
 Garaikidea taldearen
 emanaldia. 3 euro.
 Coliseoan.



Erakusketak


Ekainaren 14ra arte:

- CRISTINA AZPIRI, ELISABET EGUREN ETA ESTEBAN OROZEN PINTURAK (Untzagako Jubilatutako Etxea)

Ekainaren 19ra arte:

- DIBUJO ETA ZERAMIKA UDAL ESKOLEN IKASTURTE AMAIERAKOA (Portalea)

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurra etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.



Zorionak, OIHAN, eguenian zure lehen urtetxua bete zenuen-eta. Patxo haundi bat etxeko guztion partez. Segi irribarre horrekin!




Zorionak, URKO, mutil haundi!!, astelehenian 6 urte bete zenuen-eta. Patxo bat etxekuen eta, batez be, anaixa Oierren partez!!



Zorionak, KEPAI, martitzenian 10 urte bete zenuen-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, ELENE, aste honetan urtiak bete dozuz-eta! Musu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, ANTON, bixar 3 urte beteko dozuzelako. Patxo bat etxeko danon eta, batez be, Sabina eta Marinaren partez.



Zorionak, IZARO, martitzenian 7 urte egingo dozuz-eta. Musu haundi bat etxekuen eta, batez be, Landerren partez!



Zorionak, ARIANE, aurreko martitzenian 7 urte bete zenuen-eta. Musu bat etxekuen eta, batez be, NAIA ahiztiaren partez.



Zorionak, AITA, bixar 53 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat etxekuen partez. Askok maite zaittugu!



Zorionak, GARI, 8 urte bete dozuz-eta! Maite zaittugu, txikito!



Zorionak, MADDI, hillairen 7xan 14 urte egingo dozuzelako. Etxekuen partez.

zineaColiseoan

(1 ARETOAN)

2an: 17:00, 19:45, 22:30

3an: 17:00, 20:00

4an: 20:30

"Custodia compartida"

Zuzendaria: Xavier Legrand



(2 ARETOAN)

2an: 17:00, 19:45, 22:30

3an: 17:00, 20:00

4an: 20:30

"El intercambio"

Zuzendaria: Ignacio Nacho



(ANTZOKIAN)

2an: 17:00, 19:45, 22:30

3an: 17:00, 20:00

4an: 20:30

"Han Solo. Star Wars"

Zuzendaria: Ron Howard



i Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

- Pisia salgai Sostoatarren kalean. 3 logela, 2 komun, egongela, sukaldea eta ganbara. 85 m². Tel. 630-878394.
- Babes Ofizialeko pisua salgai Barakaldo kalean. 3 logela eta 2 komun. Garajea eta trastero handia. Guztiz jantzita. Bizitzera sartzeko moduan. Tel. 600-752732. Koldo.

1.2. Errentan

- Logela hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 679-737762.
- Familia arduratsua 2/3 gelako pisua hartuko luke alokairuan. Tel. 632-426847.
- Logela alokatuko nioke lana duen emakume arduratsu bati. Sukaldea eta komuna erabiltzeko eskubidearekin. Whats-App 657-156254.

3. Lokalak

3.1. Salgai

- Mendaroko Arrats pub-a salgai edo lokagai, jubilazioerengatik. Tel. 943-755058.

4. Lana

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko (lokalak, pisuak), nagusiak zaintzeko eta sukaldari-laguntzaile moduan. Tel. 666-156651.
- Neska euskalduna eskaintzen da ekainean eta uztailean umeekin jardueran desberdinak egiteko. Esperientzia. Tel. 681-330881.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 679-737762. Carmen.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko (baita ospitalean ere) eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-624304.
- Emakume arduratsua eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. 688-495388.
- Emakumea eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 619-334381.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 642-099392.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 631-098995.

- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko (tabernak, sukaldeak, pisuak, pegorak) eta nagusiak zaintzeko. Tel. 632-426847.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 682-319739.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. 8 urteko esperientzia. Tel. 674-480259.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 651-508694.
- Mutila eskaintzen da peoi moduan, nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-644435.
- Mutila eskaintzen da dendan, tabernan edo tailerrean lan egiteko. Tel. 631-462998.
- Neska eskaintzen da dendan edo tabernan lan egiteko eta umeak zaintzeko. Tel. 631-128719.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita ospitalean ere. Tel. 631-429214.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 632-585088.
- Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 652-668877.
- Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko (sukaldea, plantxa...). Erreferentziak. Tel. 631-406177.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 634-609827.
- Neska euskalduna eskaintzen da arratsaldez nagusiak edo gaixoak zaintzeko. Tel. 617-571210.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 603-683176.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko (baita gauak pasatzeko ere etxean edo ospitalean) Orduka. Tel. 632-411069.
- Emakumea eskaintzen da gaez ospitalean nagusiak zaintzeko (aste osoan edo egun solteak). Tel. 632-337083.
- Emakume euskalduna eskaintzen da abuztuan nagusiak zaintzeko, Eibarren edo inguruan. Esperientzia. Tel. 666-844365. Anabel.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia nagusien egoitzetan eta etxean. Tel. 688-728748. Jamilet.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 677-768682.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Ordu-tegi malgua. Tel. 602-490595.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Ordu-tegi malgua. Tel. 631-756284.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 632-553674.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Orduka. 662-012834.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita ospitalean ere. Tel. 674-480027.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 632-573554.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 632-179116.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 699-509130.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 616-585028.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita asteburuetan ere. Tel. 612-450090.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 631-907807.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Edozein ordutan. Tel. 612-518050.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 631-613245.
- Emakumea eskaintzen da asteburuetan nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka. Tel. 648-039187.
- Neska eskaintzen da plantxa edo garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 675-965130.
- Neska eskaintzen da plantxa edo garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 605-598999.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Ordu-tegi malgua. Esperientzia. Tel. 631-761161.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-882588.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 632-999079.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 688-739534. Daisy Joana.

4.2. Langile bila

- Kamareroak behar dira asteburuetarako Arrateko Tiro Pichon-en. Bidali curriculum. Postakutxa 46. 20600. Eibar.
- Neska euskalduna behar da dendan lan egiteko. Informatika ezagutzak eta eskulanean trebetasuna ezinbestekoak. Tel. 688-803449.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677-592509. Alberto.

Hyundai SUV Gama. Zuk aukeratutakoa.



TUCSON 17.900€-tik aurrera

SANTA FE 26.715€-tik aurrera

KONA 13.990€-tik aurrera

Dagoeneko zure mugak gaititu, handia den zerbaitekin bat egin eta intentsitatez bizi zaitezke. Eta, horrez gain, zelan egin nahi duzun aukeratu dezakezu Hyundairen SUV Gamak eskaintzen dizkizun aukeren artean. Puntakoena aukeratzekotan, KONA Berrira aukeratu duzu. Estiloak, konektibitateak eta abangoardiako diseinuak inspiratuko zaitue edonora joanda ere. TUCSON Hyundairekin jokabide, diseinu eta prestazioen artean konbinaketa biribila erakusten duen modeloaren arrakastarekin gozatuko duzu. Eta, azkenik, handiena, SANTA FE Hyundai: sofistikazioa, espazioa eta luxua azken detaileraino. **Zuk aukeratutakoa da.**

OARSO CAR
HYUNDAI KONTZESIONARIO OFIZIAL BERRIA GIPUZKOARAKO
www.oarsocar.com

ELGOIBAR
OIARTZUN
Lintzirin Poligonoa, 1
943 49 48 30

Olaso Polig., 17
BEASAIN
Errepide Nazionala, 1
943 80 40 54

943 74 14 80
IRUN
Juan Thalamos, 43
943 63 97 69



TUCSON Hyundai Gama: CO₂ emisioak (gr/km): 119-175. Kontsumo mistoa (l/100km): 4,6 - 7,5. SANTA FE Hyundai Gama: CO₂ emisioak (gr/km): 149-174. Kontsumo mistoa (l/100km): 5,7 - 6,6. KONA Hyundai Gama: CO₂ emisioak (gr/km): 117-153. Kontsumo mistoa (l/100km): 5,2 - 6,7.

PSP gomendagarria Penintsulan eta Balearretan TUCSON 1.6 GDI 96,4 kW/131CV 4x2 BLUED ESSENCE (17.900€), SANTA FE 2.0 CRDI 150 CV (110,4kW) 4x2 ESSENCE 7 jarleku (26.715€) eta KONA 1.0 TGD 120CV (88,3kW) 4x2 ESSENCE (13.990€) autontzat. BEZ, garrailo, matrikulazio-zerga, sustapeneko deskontua, kontzesionarioaren ekarpena eta mantenimendu-eskaintza barne. Hyundai-ra Aldatu. Plana aplikatu dabilte erabiliko auto baren truke, 6 hilabeterekin, Hyundai berri bat erosten duen bezeroaren 19ulartasunpean. Eskaintza hau aplikagarria da Críking Solución Flexible produktuarekin finantzatzen duten bezero partikularrentzat, Banco Cetelem S.A.U.-ren bitartez, 13.000€ gutxienez, 36 hilabeteko gutxieneko epean eta 36 hilabeteko gutxieneko egonaldiarekin TUCSON-en kasuan, 16.000€ gutxienez, 36 hilabeteko gutxieneko epean eta 36 hilabeteko gutxieneko egonaldiarekin SANTA FE-ren kasuan, eta 12.000€ gutxienez, 36 hilabeteko gutxieneko epean eta 36 hilabeteko gutxieneko egonaldiarekin KONA-ren kasuan. Finantziazioa finantzazko erakundeak zertu eta onartu behariko du. Eskaintza 2018/06/30era arte da baliozkoa. Irusten diren modeloak: TUCSON Style, SANTA FE Style eta KONA Style. Mantenimendua ibilgailuaren finantziatzaioi lotua. * Hyundai Motor España S.L.U.-k bere bezeroei eskaintzen dien km mugarik gabeko 5 urteko berme komertziala Hyundai-ren sare ofizialak salduko Hyundai ibilgailuei soilik aplikatuko zaie, zerbiztu-pasaporteen baldintzen arabera. Kontsultatu itzazu eskaintza, mantenimendu eta bermearen baldintzak Hyundai kontzesionarioen sarean edo www.hyundai.es web-orrian.

UDAKO
Euskara Ikastaroak
UDAL EUSKALTEGIAN

MATRIKULATZEKO
EPEA
Ekainaren 4tik 20ra

16 urtetik gorakoentzat
B1, B2 eta C1
mailak prestatzeko
ikastaroak

Ekainaren 26tik
uztailaren 23ra
(egunean 4 edo 5 ordu,
goizez)

Bista Eder 10
-PORTALEA-



Belaustegi

JATETXEA

Baserria

19.
URTEURRENA



www.belaustegi.com

San Miguel gaina, z/g

Elgoibar

Tel: 943 743 102